

Terminologiako bide berriak

Miel Loinaz

UZEI

Eskala handiko termino-produkzioa erakunde autonomikoen sorrerarekin batera hasi zela esango nuke, batez ere itzulpen premiak eraginda. Historia pixka bat eginenez, hiru alditan banatuko nuke euskal terminologiaren eboluzioa: 1990 artekoa, handik 2000 artekoa eta hemendik aurrerakoa.

1990 baino lehenagokoa

- 1990 baino lehenagoko aldian, sorkuntza eta irudimena izan ziren nagusi. Ezer gutxi zegoen oinarrizko lexikografian, ia dena falta zen terminologian eta bakoitzak ahal zuena egin zuen, idiak orgari ahal zen moduan lotuz. Terminogintza horren bi sorleku nabarmen jarriko ditut: UZEI eta Jaurlaritzako itzulpen-zerbitzuak.

- UZEI 1977an sortu zen eta oinarrizko hiztegi teknikoaren multzo handia zuen egina laurogeita hamarrerako: *Fisika, Kimika, Psikologia, Matematika, Hizkuntzalaritza, Kirolkidea, Artea, Filosofia, Biologiako Izendegia, Zuzenbidea...*

Argi dago hiztegi hauetakoa hainbat termino gaur egun baztertuta daudela, bai hitzen formen aldetik eta bai hainbat termino sortzeko aukeratutako bidearen aldetik. Termino horietako beste asko eta asko, ordea, onartuak izan dira.

- Bestetik, administrazio publikoan, eta bereziki Jaurlaritzan (Aldizkari Ofizialaren itzulpenean, HAEE/IVAPen) bide garbizaleagoa egin zen. *Arduralaritza* bezalako hitzen garaia izan zen. Garai horren lekuko da, adibidez, *Agintaritza Aldizkarietatikako Hitz Bilduma*, 1985ekoa.

Hamar urteko garai honetan piztu eta itzali ziren hainbat termino, udako gauean San Lorentzoren malkoak bezala. Hasierako garaiak ziren. Bide asko urratu ziren, batzuetan asmatu zen, beste batzuetan ez. Bakoitza bere aldetik ibili zen, eta hori da, batez ere, garai honen ezaugarria, lankidetzat falta.

1990etik 2000ra.

Elkarlanaren eta adostasunaren premiaz jabetu zen jendea eta azken hamar urteetan bateratze-prozesu bat joan da indartuz. Hainbat erakundeetako ordezkarien batzordeak antolatu dira, batzuetan Hizkuntza Politikak bultzatuta, beste batzuetan IVAPek eta beste batzuetan beste erakunde publiko batzuek: Nekazaritza Sailak, Lan Harremanen Kontseiluak, etab. Lan-talde hauek benetako "normalizazio-batzorde" gisa aritu dira eta bertan partaide izan dira Jaurlaritzako ordezkariak (IVAP, Hizkuntza Politika, Aldizkari Ofiziala), Nafarroako Gobernuak, Foru Aldundiak, Euskaltzaindiak, UZEIkoak, etab.

Azken urteetako historia laburki gogoratuko dut.

- *Errentaren zerga aitorpenerako inprimakiak (1990)*.

Hiru Foru Aldundietan eta Nafarroan errentaren aitortzea egiteko zeuden inprimakiak hustu ziren UZEIn, eta inprimaki horietako testuak bateratzeko batzorde bat osatu zen, Hizkuntza Politikak antolatuta. Hor egon ziren Jaurilaritza barneko hainbat ordezkari (IVAP, Aldizkari ofizialekoa, Hizkuntza Politika), hiru Foru Aldundietakoak, Nafarroako Gobernuak, UZEIkoa. Batzordearen proposamenei Euskaltzaindiak egingako oharrak kontuan hartuta zerrenda bat atera zen, nahiz eta ez zen inprimategiko argitalpen formala izan.

Hor erabiltzen diren zenbait forma, gerora baztertuak izan dira, hala nola, *neka-zal, merkatal, kartera*.

Baita ere hor finkatzen dira gerora arrakasta izango duten zenbait termino: adibidez, *higiezin* eta *higigarri* (inmobiliario, mobiliario esateko) edo inoiz kritikatuak izan den zergaren *aitortzea*.

- *BEZ zergaren inprimakia (1990)*. Hemen ere aurrekoaren antzeko bidea segitu zen: balio erantsiaren zergarako inprimakia hustu zen UZEIn, eta horretarako Hizkuntza Politikak deitutako batzorde batean adostu zen euskarazko itzulpena. Batzorde horren osaera, aurrekoaren antzekoa izan zen. Baina orainoan, proposamenak Euskaltzaindira bidali ziren. Euskaltzaindiak "batzorde suntsikor" bat eratu zuen horretarako, eta batzorde horretan egingako zuzenketekin atera zen behin betiko zerrenda.

Gerora lurralde historiko-k baztertu du zerrenda honetan proposatzen den *herrialde historiko*.

Errentaren aitortpeneko *oinarri ezargarri* zuzendu egiten da eta *zerga oinarri* proposatzen da.

- *Barne Errotulazioa (1992)*. "Euskal Herriko Herri Erakundearen Barne Errotulazioa" izenarekin argitaratu zen inprimategian. Hizkuntza Politikak deituta eratu zen normalizazio-batzordea, eta bertan zeuden Euskaltzaindia, UZEI, EUDEL, hiru Foru Aldundiak, Nafarroako Gobernuak, Iparraldeko Euskal Kultur Elkarteak eta Jaurilaritziatik IVAP, Hezkuntza Saila eta Hizkuntza Politika. UZEIk egin zuen errotuluaren zerrendaren hustuketa, eta ondoren lantaldea sei hilabetez aritu zen lanean, astean behin bilduz. Hemen proposatzen den *mantenimendu* gerora baztertua izan da. Eta hemen adosten den *ingurugiro*-ren ordain hobeto gisa *ingurumen* agintzen da geroago Hiztegi Batuan.

- *Bide seinaleak (1994)*. Hizkuntza Politikak, Euskararen Aholku Batzordeak emandako gomendioei jarraituz, batzorde bat antolatu zuen. Partaide ziren hiru Foru Aldundiak, Nafarroako Gobernuak, hiru hiriburuetak Udalak, Euskaltzaindia, UZEI, EUDEL, eta Eusko Jaurilaritziatik Garraio eta Herrilan Saila, IVAP eta Hizkuntza Politika. Hau ere ez da zehazki hiztegi terminologikoa, baina terminologia asko adosten da errotuluak itzultzean. Hemen finkatzen dira, adibidez, *autobide* eta *autobia*, 'autopista' eta 'autovia' esateko.

- *Nekazaritza hiztegia (1995)*. Hau izan zen normalizazio-batzorde batean adostutako lehenengo hiztegi terminologikoa.

Batzordea Hizkuntza Politikak antolatu zuen, eta ondorengo erakundeak egon ziren ordezkariak: Nekazaritza eta Arrantza Saila, Nafarroako Gobernuak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, IVAP, hiru Foru Aldundiak, Fraisoro Nekazaritza

Eskola, Euskaltzaindia, Elhuyar, UZEI eta Hizkuntza Politika. Hiztegi-lanak UZEIn egin ziren eta azken erabakiak batzordean adostu ziren.

- *Administrazio hiztegia (Funtzio Publikoa) (1996)*. HAEE/IVAPek antolatutako batzordea eta egin zuen hiztegiaren terminologia-lana. Batzordean Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, hiru Foru Aldundiak eta UZEI egon ziren.

- *Arrantza hiztegia (1997-1998)*. Arrantza Sailak sustatua. Hauek izan ziren normalizazio-batzordeko partaideak: Eusko Jaurlaritzako Arrantza Zuzendaritza eta Hizkuntza Politika, Gipuzkoako Foru Aldundia, HAEE/IVAP eta UZEI.

- *Lan-harremanen hiztegia (1999)*. UZEIk egin zuen Nafarroako Gobernuak eta Lan Harremanen Kontseiluak eskatuta. Batzordean egon ziren Lan Harremanen Kontseilua, Nafarroako Gobernua, Euskal Herriko Unibertsitatea, IVAP eta UZEI.

Amaitzeko, aipatu nahi nituzke oraingo beste bi adibide. Bata da Epaitegietakoa Idazki Ereduak bateratzeko batzordea, urteetan lanean ari dena. Hor daude elkarrekin Justizia Saila, UZEI, IVAP, Deustuko Unibertsitatea, Abokatuen elkargoak, epaileak, itzultzaileak... Epaitegietakoa idazki-ereduak bateratzen ziren bitartean, termino asko eta asko ere adostu dira.

Beste adibide bat, bateratze-prozesu hau argi erakusten duena, Zigor Kodearen itzulpen argitaratu berria da. Deustuko Unibertsitatean itzulia, IVAPen berrikusia eta Epaitegietakoa Idazki Ereduak normalizatzeko batzordearen proposamenak oso konfiantzagarriak hartu dituenak.

Laburtuz, azken 10 urteetan bateratze saio asko egon da, hemen aipatu ditugunak eta beste asko ere bai. Guztiok aldatu dugu "txipa" edo pentsatzeko modua, eta ulertuz joan gara terminologian "ados jartzea" dela arau nagusia.

2001etik aurrera

Esango nuke garai berri baten hasieran gaudela, eta hori adierazi nahi da hitzaldian honen izenburuan. Euskarazko terminologia-lanari nolabaiteko babes ofiziala eman nahi diola adierazi dio UZEIri Jaurlaritzako Hizkuntza Politikak.

Beraz, datozen urteotarako terminologia-lanaren plangintza egitea agintzen duen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak esandakoari jarraituz, Eusko Jaurlaritzak euskarazko terminologia indartzeko erabakia hartu du. Hori izan da UZEIri azaldu zaiona eta UZEIk onartu duena.

Plangintza horren barnean, bi puntu nagusi aipatuko ditut: Terminologia Banku Publikoa eta Terminologia Batzorde Berrikuslea.

Terminologia-banku publikoa

Orain arte, baguen euskarazko terminologiaren banku bat, EUSKALTERM deitzen dioguna. Banku hau, nolabait esateko, terminoen makro-hiztegi bat da, eta hor daude bilduta ez bakarrik UZEIk argitaratu dituen hiztegiak, baita ere lehen azaldu ditugun batzordeetan adostutako guztiak. EUSKALTERM doan eskaintzen da Internet bidez. Jendeak zenbat erabiltzen duen ikus dezazuen, gutxi gorabehera hilean 30.000 kontsulta izaten ditu. UZEI arduratzen zen banku honetako terminoak eguneratzen eta hiztegi berriak bertan sartzen.

Aurten terminologia-banku publikoa eratzeko bide berri bati ekin zaio. Eta banku publikoa eratzeko, EUSKALTERM bankutik abiatzea proposatu dio Jaurlari-

tzak UZEIri. Beraz, Jaurlaritzak eta UZEIk lagapen-kontratu bat sinatu dute. Orain arte "EUSKALTERM, UZEIren Terminologia Bankua" zena, aurrerantzean EUSKALTERM, Terminologia Banku Publikoa" izango da. Helburu horrekin, EUSKALTERM Bankua kudeatu, eskaini eta eguneratzeko eskubideen lagapena egin dio UZEIk Eusko Jaurlaritzari. Eta guzti horren ondorioz, laster euskadi.net gunetik eskainiko da EUSKALTERM kontsulta.

Terminologia Batzordea Berrikuslea.

Maiz aipatu izan da honelako batzorde baten premia. Miren Azkaratek, duela lau urte, Donostiako Terminologia Biltzarrean argi eta garbi eskatu zuen.

Terminologia-batzorde berrikuslearen eraketa izan da Jaurlaritzak UZEIri proposatu dion planaren bigarren puntu garrantzizkoa: EUSKALTERMeko terminoak, aurrerantzean, batzorde horretatik pasatuko dira, eta batzorde horren onspena izan beharko dute.

Batzordeak finkatuko ditu terminologia-arloko lehentasunak, terminologia-lanerako irizpideak emango ditu, termino bat baino gehiago dagoenean, termino hobetsia aukeratuko du eta landutako terminologia-lanei onspena emango die.

Hemen ere, bide berri baten abioan gaude. Lehen aipatu ditudan batzordeak "suntsikorak" ziren nolabait esateko, proiektuei lotuak ziren, eta proiektua amaitzean batzordea deseginda geratzen zen. Hemendik aurrera, batzordea iraunkorra izango da, ofiziala.

Amaitzeko, zera esan nahi nuke, planteamendu berri hauek nolabaiteko "txip" aldaketa eskatuko digute guztioi. Lehenik, terminologoei, lan egiteko eta erabakiak hartzeko moduak aldatzea edo egokitzea ekarriko duelako. Gero, lexikografoei, terminologia-arloan adostutako erabakiei begirunea izaten jakin beharko dutelako, eta, azkenik, idazle eta erabiltzaile guztiei, normalizazio-bide berri honetara moldatu beharko dutelako.